GARAZI BAIONA TREN BIDEAK BIZI BEHAR DU !!!

1996

Bertako hautetsi batzuek baita tren bideko langilek tren bide honen egoera txarraz alarmatzen dute.

2010

Trenbidea 6 hilabetez zerratua da Baiona Kanbo zatia modernizatzeko.
Erabakiak diren lan batzu ahantziak dira... (langa batzuen aldaketa)

HISTORIKOA

2015

Tren bidea 10 hilabetez zerratua da berritze lan batzuentzat. 64 milioi euro inguruko obrak dira.
Gaizki egin batzu agertzen dira...

Geroztik...

Erregularki ehunka tren anulatuak dira baita tren bidea behin behinetan zerratua arrazoin desberdinen gatik : langile eskasa, deshuntageak, bide lerradurak..., arbolak tren bide gainean (Kanbo eta Ortzaizeko mantenamendu brigaden suprimatzeen ondorio zuzena!), material arazoak, kudeatze txarra Bordaletik...

Eta ehunka tren suprimatuak diren denbora berean, hamar milaka autok segitzen dute Uztaritze zeharkatzen egunero, hamar milaka auto lerrokatzen dira Baionako sartzean...

Egunero Garazi Baiona ibil bidea egiten duen pertsuna bati autoa erabiltzea tren abonamendua baino 4,5 aldiz gehiago kostatzen zaio, aipatu gabe autoaren higatzea, auto lerroen estresa, istripu arriskuak, eragina ingurumenari.

HERRITARREN BEHARREI ERANTZUTEN EZ DUEN ZERBITZUA

Proposamen hauek hautetsiei azalduak izan dira...

Hautetsi hauek nun ote dira eta zer egiten dute gure lurraldea defendatzeko ?!!!

Garazi Baiona tren bidea da lau harat hunata egunean, ordu ez egokitan.

Zerbitzu bat ez dena sekulan aldatu obren aintzin ta ondotik.

Alta tren bideko langileek desmartxa frango egin dituzte eta proposamen desberdinak aurkeztu :

⇨ **Kanboren** ber idekitzea trafiko zerbitzuari tren gurutzatzea permititzeko

⇨ **Kanbo Baiona** arteko harat hunatak Martxan ematea egun osoan zehar

⇨ **ordutegi berriak** proposatzea Baiona eta Garazi artean, bereziki goiz eta arratsetan